



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2016KO AZAROAREN 24AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga
Juan Luis Cid Conde

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

*Ibarran, **bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeita lauean** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrakusten ez diren gai hauek sartzea proposatzen du. Honako gai hauek proposatzen ditu:

- Jon Mikel Iglesias Otegui zinegotzi berriaren kargu hartzea

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: 2016ko azaroaren 24ko Udalbatzaren eguneko gai-zerrendan sartzea honako gai hauen azterketa

- Jon Mikel Iglesias Otegui zinegotzi berriaren kargu hartzea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- Jon Mikel Iglesias Otegui (EH Bilduko) zinegotzi berriaren kargu hartzea
- 2.- 2016ko irailaren 29an egindako ohiko Udalbatza bilkuraren aktaren onarpena.
- 3.- 2016ko urriaren 27an egindako ez-ohiko Udalbatza bilkuraren aktaren onarpena
- 4.- 333/2016tik 412/2016ra alkate dekretuak jakinaraztea.
- 5.- Ibarra Emakume eta Gizonen Berdintasunerako lengo Planaren onarpena (2017-2020)
- 6.- Onarpena Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuaren aldaketari.
- 7.- EH Bilduk aurkeztzen duen mozioa: Azaroaren 25a, Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna
- 8.-EAJ alderdiak aurkeztzen duen mozioa: Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna.
- 9.- EH Bildu alderdiak aurkeztzen duen mozioa: Zer egin dezaket nik euskararen alde?.
- 10.- Galde-erreguak

LEHENENGOA:

JON MIKEL IGLESIAS OTEGUI (EH BILDUKO) ZINEGOTZI BERRIAREN KARGU HARTZEA

2016ko urriaren 25ean 1886 erregistro zenbakiaren erregistraturiko idatziaren bidez, Hanot Karrera Amondarain jaunak, bere zinegotzi karguari uko egiten zion eta honengatik bideratzen zuen espedientearen berri Idazkariak kontu ematen eman zuen.

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)ko hautagaien zerrendako zazpigarren tokian dagoen JON MIKEL IGLESIAS OTEGUI jaunak 2016ko urriaren 25ean erregistraturiko idatziaren bidez, bera hurrengo izanik, Zinegotzi karguaren jabe egiteko asmoa azaltzen du arloko den legediaren eraginez eta bideratutako espedientearen ondorioz.

2016ko urriaren 27an ospaturiko ez-ohizko Udalbatzan Hanot Karrera Amondarain jaunaren errenuntzia onartu zen eta Hauteskunde Nagusiaren jakinean Jon Mikel Iglesias Otegui jaunaren izendapena egiteko nahia agertu zen (1311 erregistro zenbakidun dokumentuaren bidez).

2016ko azaroaren 8an, Hauskunde Nagusiak dokumentazioa jaso ondoren 2016ko azaroaren 23an, 2009 erregistro zenbakiarekin izendaturiko dokumentu bidez, Carlos Granados Pérez jaunak Jon Mikel Iglesias Otegui jaunaren zigotzi izendapenaren kredentziala igortzen du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoak 182-184-196 eta 198 art.etan ezarritakoari eta Tokiko Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduak 9.4 eta 40 art.-etan xedaturikoari (Errege Dekretu 2568/1986) eta 2003ko uztailaren 10an Hauteskunde Nagusiaren Instrukzioa jarraiki, zinegotzi berriaren kargu hartzea egiteko prozedura aurrera eraman da.

Jon Mikel Iglesias Otegui jaunak, ondasunen eta bateraezintasunen aitortzat aurkeztu du Ibarra Udalaren idazkariaren aurrean. Idazkariak dokumentazioa jaso eta gorde du.

Kargua hartu aurretik apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak xedaturiko zin egitea egiten du:

Alkateak formula adierazi du: **Zin egiten duzu zure kontzientzia eta ohoreagatik zinegotzi karguaren betebeharrak beteko dituzula Erregeari leial izanik eta Konstituzioa beteko duzula eta betearaziko Estatuaren funtsezko arau gisa?**

Jon Mikel Iglesias Otegui jaunak honakoa erantzuten du: **legeak horrela behartuta zin egiten du**

Zinegotzi berriak kargua hartzen du eta Alkate jaunak ongi etorria egiten dio.

Alkateak jakinarazten du, Jon Mikel Iglesias Otegui jaunak, 2016ko azaroaren 25etik aurrera, Kirolaren burutza hartzen du eta Ibarra Udalaren ordezkatuko du Hiltegiko Mankomunitatean.

Mikel Agirrezabala Ezkurdia, Alkateak, Hirigintza eta Obra eta zerbizuetako burutza hartzen du Hanot Karrera ordezkatuz.

BIGARRENGOA:

2016KO IRAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko irailaren 29ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko irailaren 29ko ohiko bilkurako akta.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENGOA:

2016KO URRIAREN 27AN EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko urriaren 27ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko urriaren 27ko ohiko bilkurako akta.

LAUGARRENGOA:

333/2016TIK 412/2016RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2016ko irailaren 29tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 333/2016tik 412/2016ra.

341-342-343-344 alkate dekretuak ez daude dekretu hauen artean, errore baten ondorioz 340 dekretutik 345 era pasa dira.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

BOSGARRENGOA:

IBARRAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I .PLANAREN ONARPENA (2017-2020)

Ibarrako emakume eta gizonezkoen egungo egoeran diagnostikoan oinarritzen da dokumentu hau. Dokumentu honetan, Ibarrako emakume eta gizonen berdintasunerako plana zehazten da 2017 - 2020 urte bitartean eragina izango duelarik.

Plan honen egikaritzza Elhuyar Aholkularitzak burutu du, Ibarrako Udalak eskaera jarraituz eta Politika Feminista eta aniztasun sailaren laguntza izanik.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako Udalak herritarren egoera hobetu eta bereziki genero arteko aldeak gutxituz berdintasunean oinarrituriko gizarte bat lortzeko pausuak aurrera eraman nahi ditu eta hau da dokumentu honen arrazoi nagusia.

Bestalde, ekimen honekin, Ibarrako Udalak berdintasun arloan lan egiten ari diren beste herriekin bat egin nahi du.

2016ko azaroaren 11ko Gizarte Politikak eta Politika feminista eta aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Onartzea Ibarrako emakume eta Gizonen Berdintasunerako I Plana (2017-2020).

SEIGARRENGOA:

ONARPENA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETARI

2016ko azaroaren 22an 2006 erregistro zenbakiarekin, Gipuzkoako Ur Kontsortizioak eskaera bat aurkezten du: Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuen aldaketa egiteko Ibarrako Udalbatzaren onarpenaren eskatzen da.

27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritsaunari buruzkoak, 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren hainbat artikulua aldatzen ditu. 20. Xedapen gehigarrian eskatzen dena aintzat harturik, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuen 3.en artikulua aldatzen dute eta honako erredakzioa izango du.

3 Artikulua Nortasuna eta gaitasun juridikoa

1.- Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.

2.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120 artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxekita geratzen da. Foru Arauak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2016ko urriaren 27an ospatutako, aldaketa honi haserako onarpena eman zion. Behin-betirako onarpena egiteko aldiz, Gipuzkoako Lurralde



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru Arauren 23. Artikulua araberako, beharrezkoa da udal kontsurtzioek beraien osoko bilkuretan erabakitzea aldaketa honen onarpena.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENEGOA: Onartzea Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren Estatutuen 3. artikulua aldaketa egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Gipuzkoako Ur Kontsurtzioari.

ZAZPIGARRENGOA:

EH BILDU ALDERDIAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA: AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA DERITZONA

EH BILDU alderdiak honako mozioa aurkezten dio Udalbatzari, honek onar dezan:

MOZIOA:

Azaroaren 25ean ozenki aldarrikatu behar dugu emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela. Bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.

Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, jendartean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; publizistek eta mass-mediak emakumeen gorputzari ematen dieten erabilerak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo liriteke, eta, esparrurik bortitzenean, eraillketak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Feminismoak, eta beraz, gure jendarteak, arrakasta handia lortu zuen indarkeria matxista politizatu genuenean, eta, horrenbestez, etxeko gai pribatu bat izatetik jendartearen eta politikaren arlora zabaldu genuenean. Hain zuzen ere, agi geratu denean indarkeria matxistaren jatorria ez dagoela gizon biolento batengan edo burua galdu duen gizon batengan, berdintasunik eta orekarik gabeko jendarte-harreman jakin batzuetan baizik.

Eta horren harira norbaitek esan lezake egun inoiz baino lege, zerbitzu, salaketa eta politika publiko gehiago dauzkagula eskura indarkeria matxistari aurre egiteko, eta hori egia da. Alabaina, indarkeria hori ez da inondik inora murrizten ari, eta indarrean jarraitzen du gure jendartearen eremu guztietan.

Horregatik esaten dugu desorekak indarrean jarraitzen duen bitartean indarkeria matxista hor egongo dela, botere-harreman desorekatu horiei eustea delako, hain zuzen, indarkeria horren funtsa. Hortaz, emakumea izate hutsagatik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.

Horregatik guztiagatik esan dezakegu urte luzetako borrokari esker lortutako berdintasun formala ez dela nahikoa une honetan, eta aurrera jarraitu behar dugula, mikro eta makroindarkeria guztiak identifikatuz eta indarkeria sortzen duten eragileak banan-banan agerian utziz. Eta erantzukizuna emakumeen gainean jarri ordez, beren burua babesteko eta ez arriskatzeko eskatzen baitiegu, edozein eraso sexista sorrarazteko edo saihesten laguntzeko gai diren gizonen gainean jarriz.

Berdintasunetik gertuago dagoen beste maskulinitate bat eraiki beharra, jendarte patriarkal hau eraldatu beharra eta subjektibitatea aldatzea aldarrikatu nahi dugulako, emakume eta gizonen buruzko balioespenetan oinarritutako hierarkizazioak ezabatuz.

Indarkeria matxista gainditzeko borrokatu beharko dugulako, maskulinitate tradizionalak ezabatu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

eta desegin beharko ditugulako, adostasun berriak eraikiz, enpatiatik, sororitatetik, aukeratzeko askatasunetik, segurtasunetik, arduratik, berdintasunetik eta elkarrekikotasunetik.

Horregatik guztiagatik,

IBARRAko Udalaren EH Bilduko taldeak honako mozio hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartua izan dadin.

PROPOSAMENA:

1.- IBARRAko Udal honek tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, eraso matxisten kontrako protokoloa indartuko du, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.

2.- IBARRAko Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.

3.- Erakunde honetatik, hau da, IBARRAko Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.

4.- Erakunde honetatik, hau da, IBARRAko udaletik, bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea EH BILDU alderdiak aurkezturiko mozioa, azaroaren 25eko adierazpen instituzionala emakumeenganako indarkeriaren ezabatzeko nazioarteko egunaren ingurukoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZORTZIGARRENGOA:

EAJ ALDERDIAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA: AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA DERITZONA

EAJ alderdiak honako mozioa aurkezten dio Udalbatzari, honek onar dezan:

MOZIOA:

Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen *emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna*, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu *emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko* oinarriekin, 'Istanbuleko Hitzarmena' delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Bertan, estatuen ardurapeko eremu guztiak jorratzen dira: indarkeria prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea (batez ere gizonak eta haurrak), erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak hastea eta biktimekiko babesa, laguntza eta kalte-ordaina bermatzea, erabili daitezkeen bitartekoen bidez.

Istanbuleko Hitzarmena 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak, eta, hartara, arau guztiz loteslea bilakatu zen, erakunde zentral eta autonomikoetan zein tokiko erakundeetan. Hitzarmena funtsezko tresna dela uste dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko esparru gisa baliagarria da.

Horiek horrela, Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Ibarra (e)ko Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.

Hona hemen neurri zehatz batzuk:

1. *Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.*
2. *Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.*
3. *Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzea emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.*
4. *Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.*
5. *Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.*
6. *Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.*
7. *Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.*
8. *Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskatilen eskubideak.*
9. *Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizaziorako ekintza soil gisa.*
10. *Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta borrokatzen laguntzea sustatzea. Berdintasun politikak sustatuz eta eraso matxisten kontrako protokoloak indartuz edo martxan jarriz eta gizartearen erantzun soziala sustatuz.*



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

11. Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarriz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.
12. Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.
13. Gai honetan beharrezkoak diren neurrien finantzaketa bermatzeko mekanismo zehatzak ezartzea.

Bukatzeko Ibarra()ko Udalak bat egiten du azaroaren 25erako deituak izan diren mobilizazioekin eta jendarte osoari deia luzatzen dio parte har dezan.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea EAJ alderdiak aurkezturiko mozioa, azaroaren 25eko adierazpen instituzionala emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren ingurukoa.

BEDERATZIGARRENGOA:

EH BILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA: ZER EGIN DEZAKET NIK EUSKARAREN ALDE? DERITZONA

EH BILDU alderdiak honako mozioa aurkezten dio Udalbatzari, honek onar dezan:

MOZIOA:

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Dueal berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula berak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-koehesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera-berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko eguna badugu, baita ere, indarberitzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialaren berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagozkionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Biana helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristek. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten dutelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarrei. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: “Zer egin dezaket nik euskararen alde?”.

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-erabile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, “Zer egin dezaket nik euskararen alde?” galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea EH Bildu alderdiak aurkezturiko mozioa, Zer egin dezaket nik euskararen alde? izenburuduna.

HAMARGARRENA: **GALDE-ERREGUAK**

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita zortzi direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.